# XUXEN Hunspell Mac

# Eskuliburua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


Egileak:

ixa.si.ehu.es

www.eleka.net

# Aurkibidea

XUXEN Hunspell Mac....3

Sarrera ....3

Instalazioa....3

Erabilera....4

Safari....4

Lizentzia....6

# XUXEN Hunspell Mac

## Sarrera

Mac OS X Snow Leopard (10.6)tik aurrera, OpenSpell.service izeneko zerbitzu berria dago, Hunspell zuzentzaileen erabilera ahalbidetzen duena. Horrela, sistemaren zuzentzaileak erabiltzen dituzten programek zuzentzaile hauek erabili dezakete, hauen artean Safari, Mail, iWork eta TextEdit bezalako programak daudelarik.

## Instalazioa

- Fitxategia jaitsi (**XUXENHunspellMac.zip**)
- Fitxategiaren barruan dauden bi hiztegi-fitxategiak ( **euskara.dic** eta **euskara.aff**) *Librería /Spelling* karpetan kopiatu. Finder-a erabiliz, Disko gogorra ireki, gero *Librería* karpeta eta bertan dago *Spelling* karpeta.



# Erabilera

Aurreko atalean azaldutakoarekin nahiko da zuzentzailea instalatzeko. Zuzentzaile ortografikoaren konfigurazioa eta erabilera, programaren araberakoa izango da.

Orokorrean, testua idatzi daiteken edozein kutxatan, saguaren eskuineko botoia sakatuta (edo Ctrl + Klik) menu bat aterako da ortografia aukerak konfiguratzeko.

Bertan, “euskara” hizkuntza aukeratzearekin nahikoa da.

Adibidetzat, Safari-n “euskara” nola aukeratu azalduko dugu.

## Safari

Testu-kutxa bat duen orrialde batean, saguaren eskuineko botoia sakatu (edo Ctrl + Klik) eta *“Ortografía y gramática > Mostrar ortografía y gramática*” aukeratu.



Ateratzen den leihoan, behealdean agertzen den goiti-beherako menuan, *euskara (Librería)* aukeratu.




Orain, testu-kutxan idazterakoan, oker dauden hitzak gorriz azpimarratuta agertu dira.




Gainean eskuin botoiarekin klik egiterakoan, zuzenketa-proposamenak agertuko zaizkigu.



# Lizentzia

**GNU General Public Licence (GPL) 2. bertsioa lizentziapean argitaratua.**

**http://www.fsf.org/licenses/licenses.html**